



Trebakuntza 2009/04: EZEZKO ESALDIEN ERABILERA

Udal idazki askotan, ezezkoak erabiltzean, esaldi lausoak eta ulertzeko zailak agertzen dira. Askotan, argitasunaren mesedetan, esaldiak beste modu batean idaztea komeni da, ezezkorik erabili gabe. Izan ere, ezezkoak gaztelaniazko esaldien itzulpenen ondorio izaten dira. Ikus ditzagun adibide batzuk:

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. **Txerri gripeen kasuek argi utzi dute **segurtasun neurririk eza dagoela** elikagaien ekoizpenean eta salerosketan.*
2. **Gobernuz kanpoko erakunde batzuek salatu dutenez, poliziek abokatuari deitzea **ukatu zieten** etorkinei, eta galdeketaren aurretik ezer jan eta edatea.*
3. **Jehovaren Lekukoek kargutik bota dute euren arduraduna. Dirudienez, semeari ebakuntza egin ziotenean, **uko egin zion beste baten odola ez hartzeari.***
4. **Gizarteak leku publikoetan erretzea **hobesten ez duela** ikusita, udal instalazioetan hasi gara erretzaileentzako gela bereziak egokitzen.*
5. **Batzordearen bozeramaileak adierazi du batzordearen bileran izan diren kideek azkenean agiri bateratua adostea **ez dutela lortu.***
6. **Udaleko aholkulari juridikoaren ustez, zaila da kasua berriro irekitzea, ikerketak oinarritzeko adierazpen garrantzitsurik **ez baitago.***
7. **Alkateak bilera izan du Hontza kultur elkarteko kideekin, kultur elkartearen ekarpenen berri izateko. Udal gobernuak balorazioa **gaur ez du egingo.***

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Askotan, **“gabezia”, “falta”** edo bestelako hitz bat sartzen dugu, eta **esaldia askoz ilunago** geratzen zaigu ezezkoa erabilia baino. Hartara, kasu horietan, **komeni da** adierazi beharrekoa **ezezkoaren bidez adieraztea**.

Ad. Txerri gripeen kasuek argi utzi dute **ez dagoela segurtasun neurririk** elikagaien ekoizpenean eta salerosketan.

2. Esaldi horri buelta asko eman behar dizkiogu, esanahia behar bezala ulertzeko. **Esaldiak esanahia argitu barik ilundu egiten digu**. Beraz, **hobe da gauzak beste modu batean adieraztea**:

Ad. Gobernu kanpoko erakunde batzuek salatu dutenez, poliziek **ez zieten utzi** etorkinei abokatuari deitzen, eta **ez zieten eman** jateko eta edatekorik galdeketaren aurretik.

3. **“Ukatu” edo “uko egin” aditzak ezezkoan erabiltzean**, ulertzeko **zail samarrak diren esaldiak** sortzen ditugu. Beraz, gaztelaniazko egiturak itzuli baino hobe da esanahiari erreparatzea, eta gauzak **beste aditz baten bidez** adieraztea.

Ad. Jehovaharen Lekukoek kargutik bota dute euren arduraduna. Dirudienez, semeari ebakuntza egin ziotenean, **beste baten odola sartzea onartu zuen**.

4. **Ezezko gehiegi erabiltzeak ere arazoak sortzen ditu** askotan. Arazo horiek konpontzeko, onena da **ezezko kutsua duten aditzak** erabiltzea (gaitzetsi, debekatu, baztertu...).

Ad. Gizarteak leku publikoetan erretzea **gaitzesten duela** ikusita, udal instalazioetan hasi gara erretzaileentzako gela bereziak egokitzen.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



5. **Ezezkoa esaldiaren amaieran** kokatzen badugu, **informazio garrantzitsua asko atzeratzen** dugu eta esaldia amaitu arte irakurlea ez du behar bezala ulertuko zer esan nahi dugun. **Konponbide erraza** du horrek: **ezezkoa aurreratzea.**

Ad. Batzordearen bozeramaileak adierazi du batzordearen bileran izan diren kideek azkenean **ez dutela lortu** agiri bateratua adostea.

6. **Gauza bera** gertatzen da kasu honetan:

Ad. Udaleko aholkulari juridikoaren ustez, zaila da kasua berriro irekitzea, **ez baitago** ikerketak oinarritzeko adierazpen garrantzitsurik.

7. **Eta kasu honetan ere bai:**

Ad. Alkateak bilera izan du Hontza kultur elkarteko kideekin, kultur elkartearen ekarpenen berri izateko. Udal gobernua **ez du balorazioa gaur egingo.**

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org